

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 493/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onespena ematea Pablo de Oraá Oleagak Kirol zuzendari kargua uzteari, berak hala eskatuta

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 2ko 535/2019 Erabakiaren bidez, Pablo de Oraá Oleaga izendatu zen Kirol zuzendari lanpostuan.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuaren proposamenak hala eskatuta.

Ikusi da Pablo De Oraá Oleagak aurkeztutako ukoa, Añanako Gatz Harana Fundazioko zuzendari-kudeatzaile izendatzeagatik, beraz, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe,

ERABAKI DUT

Lehenengoa. Pablo De Oraá Oleaga Kirol zuzendari kargutik kentzea, berak hala eskatuta, egindako zerbitzuak eskertuz.

Bigarrena. Erabaki honek 2020ko urriaren 19tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA DEL VAL SANCHO